



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2013ko urriaren 4a, ostirala

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:13

BERTARATUAK:

Alkatea

Beñat Solaberrieta Albizu

Zinegotziak

Jon Agirresarobe Lopetegi, Bixente Lasa Karrikaburu, Amaia Dorronsoro Portularrume, Ekiñe Saizar Larrañaga, Miriam Uranga Egurza eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Jon Redondo Lertxundi, Noemi Ostolaza Arkauz, Angel del Hoyo Bravo, Lourdes Salsamendi Goñi, Eugenio Cotado Iturain eta Elena Etxeberria Sedano zinegotziek (EAJ) tokiko prentsari adierazi diote ez zirela etorriko, eta ez dute bilkuran parte hartu.



Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, Bildu udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, Herrira elkartearen kontra egindako operazio polizialari eta atxilotetei buruz.
- 2.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BILDU UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, HERRIRA ELKARTEAREN KONTRA EGINDAKO OPERAZIO POLIZIALARI ETA ATXILOKETEI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

Pasa den astelehenean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, Herrira mugimendu sozialaren aurkako operazio poliziala burutu eta hamazortzi euskal herritar atxilotu zituen Guardia Zibilak. Iraganeko gertakariak ziruditenak errepikatu ziren tamalez gure herrietako kaleetan.

Egoera berri bat ireki da Euskal Herrian bereziki ETA erakundeak behin betiko su etena iragarri zuenetik. Aitzitik, PPreu gobernuak hasieratik uko egin dio errealitate berri honi eta gatazka behin betikoz konpontzeko dagoen aukerari muzin egin dio.

Are gehiago, gatazka armatuaren baitan sortutako estatu estrategia eta baliabide guztiak bere horretan dira. Euskal presoek eskubideak ez errespetatzeaz gain, gure herrian oinarritzeko askatasun demokratikoak oraindik orain ez dira aintzat hartzen. Egoera horien baitan kokatu behar da hain zuzen Herriraren aurka Auzitegi Nazionalak burututako operazioa.

Euskal presoek euskal herritarrearen eta euren eskubideen aldeko gehiengo sozial, sindikal eta politikoa dago gure herrian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako jarraitutako abiatuta, Herriraren eta atxilotutako hamazortzi kide horien lana, aipatu gehiengo sozial horri begirako ekimenak eta elkarguneak eskaintzea zen. Hau da, giza eskubide guztien errespetuan oinarrituz, gehiengo baten aldarrikapenaren alde egitea.

Burututako operazio polizial honek hain zuzen lan hori oztokatzea du helburu, gehiengo sozial, sindikal eta politikoa horren aldarrikapena kaleetatik ateratzea, ezkatzea. Giza eskubideen aldarrikapena dena kriminalizatzea. Eta unea ere ez



da kasualitatea, hain zuzen ere Estrasburgoko Epaitegiak betirako kartzelaratzeari ezartzen duen doktrinaren epaia publiko egitera doanean. Konponbide prozesu batek guztion ekarpenak eskatzen dituenean, PPren gobernuak, iraganeko errezetekin erasotzen du egoera berria; konponbidearen aukerari kalte izugarria eraginez.

Guzti horrengatik udal honek ondoko ebazpenak onartu nahi ditu:

1.- Orioko Udalak Herriraren kontra burutu den operazio poliziala eta atxiloketak herri hone gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaizkion eraso gisa ulertzen dituela azaldu nahi du.

2.- Orioko Udalak Herriraren kriminalizioa helburu izan dezaketen ekimenak bertan behera utzi eta atxilotutakoen berehalako askatasuna eskatzen du.

3.- Orioko Udalak euskal presoek euskal herriratzea eta bere eskubide guztien aldarrikapena bere egiten du, giza eskubide guztien errespetuaren alde dagoen bezalaxe. Norabide horretan larunbat honetarako deituta dagoen manifestazio nazionalarekin bat egiten dugu.

4.- Presoen eskubideen errespetuaz gain, gatazka politiko eta armatuaren parte diren gobernu, alderdi eta eragile guztiei prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzearen bitartez laguntzea eskatu nahi diogu.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **ZAZPI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA Bildu udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, Herrira elkarteari kontra egindako operazio polizialari eta atxiloketei buruzkoa, goian jasota dagoen bezalaxe.

2.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Jon Agirresarobe zinegotziak hartzen du hitza eta, Bilduren izenean, honako hau adierazten du, hitzez hitz:

Orioko Bildu oso haserre dago urriaren 4ko plenoaren aurretik EAJko zinegotziek egindako idatziarekin. Puntuz puntu zera du esateko Orioko Bilduk:

1.- Gertaeren larritasuna. *Gai garrantzitsuagoak badaude EAJ alderdiaren esanetan. Asteaz zehar izan diren gertakariei garrantzia kentzea Euskal Herrian bizi dugun egoeraz ez jabetzea da. Non dago zinegotzian erantzukizun politikoa?*



2.- Orikoa salbuespena. *Herriz herri, Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan ere bai, Herriraren aurkako operazioaren salaketan bat egin dute EAJk eta Bilduk. Euskal Herri osoan mozio bateratua bozkatu dute. Orion zergatik ez?*

3.- Gai garrantzitsuak. *Ba omen daude gai garrantzitsuagoak Orioko Udalean. Gai horiek batzordeetan eta osoko bilkuretara lantzen dira. Eta lantzeko, bilerara agertu behar da. Azken bi batzordeetan EAJko inor ez da etorri. Atzo hirigintza batzordea egin zen. EAJ falta. Irailean obra eta zerbitzuen batzordea egin da. EAJ falta. Ez da EAJren ausentziaz hitz egiten dugun lehen aldia, gogoan duzue ezta? Legealdi guztian gertatu da, ez dira agertzen bileretara.*

4.- Alkatearen eskumenak eta plenoaren deialdiak. *Alkatearen aukera da ohiko bilkurak, ezohiko bilkurak eta bilkura urgenteak deitzea. Ohikoak hileko azken ostegunean egiten dira, eta ezohikoak dira 48 orduz deituriko beste guztiak. Guztiak dira legalak eta zilegiak. Pleno honetarako deialdia asteazkenean egin zen, ezohiko bilkura baino berrogeita zortzi ordu lehenago, legeak agintzen duen bezala.*

5.- Politika prentsa bidez. *Beñat Solaberrieta alkateak Noemi Ostolaza EAJko zinegotziari deitu zion osoko bilkuraren berri emateko. Ez zion hartu. Gerora ere ez dio deia itzuli. Alkateak korreo elektronikoko bat bidali zion azalpenak emanaz eta mozioan aportazioak egiteko aukera emanaz. Gaur arte ez du Benat Solaberrietak erantzunik jaso. Orioko EAJ alderdiak prentsa bidez egiten du politika, aurrez aurre ekarpenik ez, ezta deiak erantzun ere. Jaso den erantzun bakarra egunkarietan jasotakoa izan da.*

6.- Legealdi osoko gezurrak. *Prentsa bidezko gutunean hauxe dira EAJ alderdiak markatzen dituen gezurrak: ekintzarik ez dela egiten eta dirulaguntzak lortzeko lanketarik ez dela egiten. Edozein herritarrek daki hau gezur borobila dela. Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntzak mantendu ditugu aurreko legealdiari dagokionez, baina Eusko Jaurlaritzatik etortzen diren dirulaguntzetan murrizketa egon da EAJ gobernuan dagoenetik. Arrantza sailean eta Kirolean batez ere. Ez goaz ezer gehiago esatera.*

7.- Bakea. *Juan Priederen omenez 2012ko martxoaren 21ean eginiko ezohiko bilkura urgentea aipatu da. Momentu hartan, udala osatzen dugun hiru alderdi mahaiaren gainean eseri eta testu bateratu bat adostu genuen, udalak mezu bakarria transmititu zezan. Azken orduan ordea, (plenoa baino bi ordu lehenago) EAJk berak ere idatzitako testuari muzin egin eta osoko bilkuratik alde egin zuten. Onartutako mozioan "Juan Priederen izena erabilera eta eztabaida politikotik kanpo gelditzea" adostu bazen ere, EAJ alderdiak izena erabiltzea erabaki du.*

Azken gogoeta zabaldu nahi du Bilduk: Orioko Udalean egoteko gaitasun edo nahirik ez baduzue, norberaren karrera politikoa egiteko asmotan bazaudete eta herriaren aurrerapausoei oztopoak jartzeko prest bazaudete utzi zuen alderdiaren



ORIOKOUNDALA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura
2013/10/04

eskuetan zuen eserlekuak, herrian lan egin dezaketen jeltzaleekin eraiki dezagun Orioko Udala.

Ez zen eskari eta galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,